



GAZTELANIA ATZERRITAR HIZKUNTZA (GAH) IRAKASLEGOARENTZAKO FORMAKUNTZA/ (6. ED.)

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA: 2020-2021

ARLOA: Humanitateak

KREDITUAK: 5,6 ECTS (*)

MATRIKULAREN PREZIOA: 190 € edo 380 € (egiten diren moduluen arabera. Agiri bat edo bi ordainduko dira ere horren arabera)

ZUZENDARITZA AKADEMIKOA: Ainhoa Gomez Pintado

AURKEZPENA

Ikastaro honek, aparteko bi modulutan banatuta (bata zein bestea edo biak egin daiteke), arlo akademikoko eta profesionaleko prestakuntza espezifikoa eskaintzen du ELE irakaslea izateko (Espainola Atzerriko Hizkuntza gisa). Prestakuntza osagarri honek ikuspegi orokorra eskaintzen du irakaskuntza honi aurre egiteko beharrezkoak diren arloan inguruan, betiere ikuspegi teoriko eta praktikoa batetik eginda, orain edo geroan espainoleko irakasle izan nahi duten pertsonen lana orientatu eta ahalbidetzea xede izanik. Beraz, ikastaro honek irakasleen funtsezkoen gaitasun garapena du helburu, besteak beste, ikaskuntza egoerak antolatzea.

ZURE BILA GABILTZA

Bihur zaitez gaztelania atzerriko hizkuntza irakasle!

Lanbide honetan hasi nahi baduzu edo lanbide horren alderdi jakinetan sakondu nahi baduzu, hauxe da zure ikastaroa! Metodologia praktikoa eta parte hartzaile baten bitartez, hezkuntza esparru hau ezagutu ahal izango duzu edo profesional gisa zuk hobetzeko zure ezagutza didaktikoak, linguistikoak eta kulturalak eguneratu ahal izango dituzu.

Saio bakoitzean irakasleak gaiaren aurkezpena egingo du; eta ondoren, baliabide pedagogikoen iturri desberdinetan gaur egun aurki daitezkeen jarduerak analizatuko ditu. Lanak taldeka eta bakarka egingo dira, saio bakoitzeko edukietara egokituak. Lan horien artean, edukiak pixkanaka bereganatzeko jarduera kontrolatuak egitea, eta material didaktikoak analizatzea, egokitzea eta horiek erabiltzen trebatzea azpimarratu behar dira.

Ikastaroa jarraitzeko behar den material didaktiko guztia edukiko duzu, eta ikastaroa amaitzean bertaratze ziurtagiria emango zaizu.



Gainera, ikastaroa egiteagatik UPV/EHUko Graduoko ikasketetan aitorpena jaso ahal izango duzu, gehienez 2 ECTS arte.

Bertan espero zaitugu!

IRTEERA PROFESIONALAK

Azken urteetan atzerrian gaztelania atzerriko hizkuntza moduan irakasteko irakasleen eskaera handitu egin da.

Jarraian, irteera profesional batzuk aipatuko ditugu:

-Espainian-

Eskolak eta akademiak:

Gure herrialdea bisitatzen duten truke programen ikasleen bolumena eta herritartasun espainiarra lortzeko hauek hizkuntzaren ezagutza maila frogatzeko duten beharra kontuan hartuta, ikastegi askok gaztelania eskolak ematen dituzte Euskadiko hiru hiriburuetan.

GKEak eta elkarteak:

Espainiara heltzean etorkin askok gaztelania ikasteko duten beharrak bultzatuta, GKEetan eta elkarteetan gaztelania ikasteko eskolen eskaintza nahiko zabala da.

-Espainiatik kanpo-

Cervantes Institutua:

Cervantes Institutuak, deialdi publiko bidez, gaztelania atzerriko hizkuntza irakasle lanpostuak eskaintzen ditu. Deialdiak urtean behin egin ohi dira eta hiru fase dituzte

BETEKIZUNAK

- Gaztelania atzerriko hizkuntza gisa irakasteko espezializatu nahi duten azken mailako ikasleak.
- Gaztelania atzerriko hizkuntza gisa irakasteko espezializatu nahi duten filologiako unibertsitateko titulazioa
- Gaztelania bigarren eta atzerriko hizkuntza gisako irakasleak
- Beste atzerriko hizkuntzen irakasleak
- Atzerriko hizkuntzen irakasleen prestatzaileak



IRAKASKUNTZA

IKASTAROAREN DATAK: 2021/02/19-tik 2021/12/04-ra

LEKUA: ON LINE

HIZKUNTZA: Gaztelania

INFORMAZIO BULEGOA

IKASTEGIA: Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetza /
Vicerrectorado de Euskera, Cultura e Internacionalización

HELBIDEA: Comandante Izaola, 2. 01006 Vitoria-Gasteiz

TELEFONOA: 34 945 01 33 56

HELBIDE ELEKTRONIKOA: cursosidiomas@ehu.eus

WEBGUNEA: <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/ele>

(*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.